



HAL
open science

Zubereraren eta biarneraren arteko harremanez : lexiko mailegatua eta ahoskatzea – Lehen balantzea

Jean-Baptiste Coyos

► To cite this version:

Jean-Baptiste Coyos. Zubereraren eta biarneraren arteko harremanez : lexiko mailegatua eta ahoskatzea – Lehen balantzea. “ Pirinioetako hizkuntzak : lehena eta oraina ”Euskaltzaindiaren Nazioarteko XVI. Biltzarra - Iruñea 2008, 2008, Iruñea / Pamplona, Espainia. artxibo-00353434v1

HAL Id: artxibo-00353434

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00353434v1>

Submitted on 15 Jan 2009 (v1), last revised 4 Aug 2011 (v3)

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

ZUBERERAREN ETA BIARNERAREN ARTEKO HARREMANEZ : LEXIKO MAILEGATUA ETA
AHOSKATZEA – LEHEN BALANTZEA

Jean-Baptiste COYOS
IKER, CNRS – UMR 5478 – Baiona
jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

Euskararen eta Gaskoiniako okzitanieraren arteko harremanak deskribatu izan badira ere, ikerketa asko egiteko dira oraino Pirinioetako bi hizkuntza ez jatorrikide hoiaren arteko harremanak ongi ezagutzeko.

Aurkezten dudan testua bidean den ikerketa baten lehen bilana da. Ikergaiaren azterketa bururatua ez dela esan nahi baita. Halere, eskuratu ditudan datu eta analisiak diren bezala ere interesgarriak direla uste dut.

1. AITZIN-SOLASA : ZUBEROAREN ETA BIARNOAREN ARTEKO UKIPEN LINGUISTIKOENZ

Egin dudan ikerketa aurkeztu baino lehen Zuberoaren eta Biarnoaren arteko ukipen linguistikoez bi hitz erran nahi nituzke.

Erdi Aroko Zuberoan gaskoia hizkuntza administratiboa zela ezaguna da. Zuberoa Olorueko elizbarrutin zagon, orain Olorue Baionakoari lotua da¹. Zuberoako ohitura, *Costumes générales du Pays et Vicomté de Sole* delakoa (1520), gaskoiez idatzia zen, « dei kortez, Xiberoa Lannes edo Landetako « *sénéchaussée* » delakoan zen, eta zonbaiten ustez hanko epaileez entelegatü izateko gisan izkiribatü zen »². Halere, ohartaraz dezagun gaskoia Lapurdiko hizkuntza administratiboa izan zela ere eta luzeago Nafarroa Beherean.

Biarnoarekiko giza harremanak eta harreman ekonomikoak hedatuak ziren. XX. mendeko hasiera arte, gazteentzat ohidura zen aprendiz gisa joatea, laborari izan dadin, zurgile izan dadin, etab. Orduan, ofizio baten ikastearen gain, biarneraren ikastea ere helburua zen. Ezkontze-harremanak aski ugariak ziren. Gaskoinarako urrutiko larre-aldaketak ohizkoak ziren euskal artzainen batzuentzat. T. Eppherre-Etxebarnek, gure informatzaileetatik batek, tratulari biarnesak etxera etortzen ikusten zituen bere haur denboran. Euskara jakin gabekoak baitziren etxeko gizonak biarnera erabilten zuten pixka bat³.

Beraz euskararen eta gaskoiaren arteko ukipen aukerak asko ziren. Bi hizkuntza horiek luzaz kontaktuan izan baitira, harreman linguistiko horiek orain agortuak izanik ere,

¹ Olorue / *Auloron*, zubereraz [olú(w)e].

² Jean-Louis Davant, *Xiberoko jauna* pastorala, 2008, : 145 orr.

³ Beste argibide batzuk harreman horiei buruz Peillenen *Les Emprunts de la langue basque...* : 17-19.

hiztun asko elebidun oso edo hartzaile ziren. Zuberoako kasuan bederen, hizkuntzen alor denetan eraginak izan direla pentsa dezakegu⁴. Ikerketa hau fonetikan, ahoskeran mugatuko da.

2. IKERKETAREN KONTESTUAZ

Bi hizkuntza hoi enukipenari buruz Txomin Peillenen lanak baditugu, bere biarnerari hitz mailegatuen bilduma (1998) besteak beste, Jean-Baptiste Coyosen emendakina (2001) eta azken honen mailegu horien sailkapena eremu kontzeptualeka (2006).

Artikulu honetan, maileguak fonetikaren ikuspuntutik aztertzen ditut, nola XXI. mendearen atarian hitz gaskoi horiek ahoskatzen diren, bai biarneraz (Olorueko eskualdean bereziki) eta bai ere zubereraz. Berrehun bat hitzen ahoskatzea baliatzen dut gutxi gorabehera, bokalen, kontsonanteen eta azentuazioaren gauzatzea sinkronian konparatuz bi hizkuntzetan. Konparaketa horrek argibide asko ekarten dizkigu.

Noski beste euskalkiek hitz horietatik asko mailegatu dituzte ere. Adibide bakar bat : *desplazer*, zubereraz [dɛplazé], Axularen 1643ko *Geron* aurki daiteke. Zubererak, euskararen eremuko muga euskalki izanki, euskal eremu horren erdiko euskalkiek baino gehiago mailegatu duela pentsa dezakegu, eta hori bereziki ukitzen zuen gaskoi dialektoari, beraz biarnerari. Halere, Txomin Peillenen ustez, zubererak, oro har, ez du Ipar Euskal Herriko beste euskalkiek baino gehiago mailegatu (1998 : 20). Horren arabera, beste ekialdeko hizkerak zubererak mailegatu dituen hitzetatik hiru laurdenak badituzte, eta euskalkiek denek horietatik asko ere (1998 : 51).

Baina ikerketa eremua ongi mugatzeko nahian ez dut hemen aztertuko nola beste euskalki horiek bereganatu dituzten, nola biarnerari edo era zabalagoan gaskoiari mailegatu dizkioten. Euskalkiek hurbilago ziren gaskoi hizkerari mailegatu zieten pentsa dezakegu. Honela, zubererak eta beste euskalkiek gaskoiari hitz bera ez diote beti mailegatu : oraiko euskara batuan *gona* badugu, *gòna* gaskoieraz, baina zubereran [k^hta] *kota*, *còta* gaskoieraz, adibidez.

Ikerketa honen bidez, biarnerak, adstratu gisa, zubereran izan dituen eraginak agertzen zaizkigu, baina bai ere euskarak, zubererak gure kasuan, biarneran izan dituenak substratu eta gero ukipen-hizkuntza gisa. Bi hizkuntzen arteko ukipenak bi hizkuntzak eragin ditu, baina alor linguistiko ezberdinetan eta era ezberdin batez.

3. HITZ MAILEGATUEI BURUZ

Gaskoiak zubererari sentimenduen, kalifikatzaileen (erdeinuzkoak ala ez), ekintza-izen eta aditzen, eguneroko tresna eta gauzen eremuei hitz asko eman dizkiola agertzen da. Alderantziz, ekarpena ahula da familiaren, erlijioaren, denboraren edo espazioaren eremuetan (Coyos, 2006). Hitz mailegatu horien zati bat desagertu diren tresnei, teknikei lotua da eta beraz gero eta gutxiago ezagutuak dira. Orotara 1 600 mailegu zerrendatu ditut (Coyos, 2006)⁵.

⁴ Nafarroa Behereko kasuan ikus Martin Haasen fonologia eta gramatika adibide batzuk: 1990, 2002.

⁵ Kopuru hori, oro har, hain handi ez da, beste hizkuntza batzuek mailegatu duten hitz kopuruari konparatuz.

Alderantziz, ezagutua da gaskoierak euskarari hitz gutxi mailegatu dizkiola⁶. Grosclauden arabera gaskoiak euskal hitz horiek mailegatu ditu : biarn. *abarca* « abarka », biarn. *agòr* « udazken » cf. *agorri*, biarn. *auròst* « ehortzetako kantu » (eusk. *auri* + *osti*, Rohlf's § 86), biarn. *bisquèra* « teilatuko gailur » (eusk. *bizkar*), biarn. *sharre* « baliorik gabe » cf. *txar*, biarn. *shingarra* « hirugihar » cf. zub. *txinkor* (2000 : 6)⁷. Toponomian ere noski, bereziki Biarnoko mendietakoan, euskal hitzak aurki daitezke.

Peillenek ohartarazten du : « Il est souvent difficile de distinguer les emprunts à l'occitan, ceux au latin d'Église, au latin populaire, au castillan... impossibilité de trancher entre l'occitan et le castillan, ces langues ayant réalisé des emprunts mutuels » (1998 : 19). Ber gisan, Allièresek ere dio okzitanieraz : « (...) il est parfois malaisé, si la phonétique évolutive ne nous le révèle pas, de faire le départ entre des formations d'époque latine et d'époque romane » (2001 : 184).

Kasu batzutan argi da zubererak gaztelaniari hitza mailegatu diola. Adib. : « palazio, jauregi », *palatiu* lat., *palacio* gazt., [palásjo] *palazio* zub., [palé] [paláj] *palais*, *palatz* biarn. ; « prezio », *prětiŭm* lat., *precio* gazt., [présjo] *prezio* zub., [prets] *prètz* biarn.

Noizbait, gaskoiak eta zubererak ez dute hitz latino bera mailegatu: « kantu », *cantòr*, *òris* lat., [khãtóe] *kantore* zub., baina *cantione* lat., [kants□] / [kantsú] *cañon* biarn.

Beste aldiz ere mailegatu duten hitza forma ezberdinetan egin dute : « denbora », *tempõra* lat. plurala, [dëbóa] *denbora* zub., aldiz *tempũs* lat. singularra, [tems] *temps* biarn.

Noizbait zubererak hitz mailegatuaz gain beste euskal forma bat badu. Adib. : « estakuru », *desencusa* [dezëkýzɔ/ə] biarn., *desenküsa* [de□ëký□a] zub. eta ere *estakürü* zub.

Noizbait zubererak ez du Olorueko forma baliatzen, baina beste bat gaskoiarena ere : « trakets », zub. [maleştrýk] *malestrük* eta ez Olorueko [deseştrýk] *desestruc* ; « musuzapi », zub. [mukaná□] *mukanas* eta ez Olorueko [mukadé] *mocader*.

Noizbait ere zubererak Olorueko berriemaileei forma ezezagun bat begiratu eta baliatzen du : [o□talér] *ostaler* « aterpekide »⁸.

Zubererak, euskarak era orokorrean bezala, forma latino edo erromaniko batzuk biarnerak baino hobe kontserbatu ditu. Horrek ez du esan nahi biarnerari mailegatu ez dizkiola. Biarnoko formak alda izan daitezke geroztik, eta alderantzia ere gerta zitekeen. Baina, oro har, XVI. mendez gero aldaketa fonetiko gutxi izan dira bi hizkuntzetan.

4. BI HIZKUNTZEN SISTEMA FONOLOGIKOEI IKUSPEGI BAT

Ikerketa honen helburua ez da bi hizkuntzen sistema fonologikoak konparatzea, zubererak mailegatu dituen hitzen ahoskatzearen konparatzea bakarrik.

⁶ Ikus Grosclaude, 2000 : 5-7, Allières, 2001 : 232. Rohlfsek ustezko hitz gehiago ematen ditu.

⁷ Erabiliak diren laburdurak : bat. : euskara batua, biarn. : biarnera, eusk. : euskara, fem. : femininoa, gask. : gaskoia, lat. : latina, lat. ar. : latin arrunta, ok. : okzitaniera, plur. : plurala, sing. : singularra, zub. : zuberera.

⁸ Hiztegietan emana da : *ostalèr* « ostalari » adierarekin.

Biarnoko bi iturri nagusi, bi hizkera baliatu ditut: Oloruekoa eta Escòsekoa⁹. Olorueko biarnera hautatu dut Zuberoari hurbila baitzaio, Zuberoa Olorueko hiriarekin harremanetan izan baitzen eta baita oraino (ikus 1. zatia). Escòsekoa interesgarria da ere zeren eta Saliesen kantonamenduko herri hori euskal mugan dago, Baxe Nafarroaren ondoan, Biarnoko mendebaldean. Olorueko hizkera zubererari hurbilago agertzen zaio, Escòsekoa baino. Halere, Aspeko edo Barétouseko ibar auzoetako biarnera zubererari hurbilago litzaioke. Adibide batzuk emanen ditut testuan zehar. Hau da bat : Oloruen [yrús] *urós*, Aspeko ibarrean [irús] eta Zuberoan [ijú□] *irus* « zoriontsu ».

Oro har, bi hizkuntzen sistema fonologikoak aski hurbilak dira¹⁰. Ez ditut hemen emanen, ohar batzuk eginen bakarrik. Erabiliak diren adibideetan aldaera fonetikoak denak ere ez ditut emanen, biarnerarenak izan daitezzen ala zubererarenak.

4.1. Biarneraren eta zubereraren elkarrekiko ezaugarri batzuk

— Zubereraren /y/ ü fonema, gaskoiaren ekarpena ?

Gaskoiaren /y/ fonemaz Allièresek dio : « [y] remonte pour l'essentiel à *ū* latin » (22. orr.), « phénomène probablement gallo-roman » (2001 : 223. orr.).

Txomin Peillenen arabera, zubererak eta Amikuzeko euskalkiak gaskoiari XIV. mendean mailegatu diote (1992 b : 252). René Lafon ez zen osoki ikusmolde horren alde, /u/ > /y/ joera linguistikoa euskaran azkarrago baitzen gaskoian baino¹¹.

— Ozenketa gabeko p, t, k bokalartekoan

Rolhfsek zion bokalarteko [p], [t], [k] kontsonanteak ozenketa gabe egoten direla Aspeko eta Barétouseko ibarretan, esan nahi baita Zuberoako ibar auzo biarneretan (1977 : 130-136). Hau da berriz Zuberoako eta Biarnoko mendietako ibarren arteko hurbiltasun linguistikoa ezaugarri bat.

— /tʃ/, /□/, /ɲ/, /ʎ/ kontsonante palatalizatuak

Zubereran bezala /ʎ/ aurkitzen da biarneran : « kodaina », biarn. *dalha*, Olorue [dáʎə], Escòs [dáʎə], zub. *dailü* [dáʎy].

Escòsen /ɲ/ ez da aurkitzen hitz-hasiera hutsean (Hourquebie-Pinque : 38 orr), baina Oloruen bai : [ɲaká] *nhacar* « ausiki », [ɲurá] *nhurar* « murmurikatu », [ɲawlá] *nhaular* « miao egin ».

Oro har, halere, kontsonante palatalizatuak zubereran baino biarneran hedatuagoak direla iduri du.

— Biarneraren [ts], [tʃ] afrikariak hitzaren amaiera absolutuan

« eder », *bellu* lat., *beth* biarn.: Olorue [bɛt] edo [bɛtʃ], Escòs [bɛt].

⁹ Olorueko hizkeraz nire bi berriemaileak dira : René L. (61 urte, Olorue/Auloron) eta Nathalie M. (72 urte, Estos/Estòs, Olorue ondoko herria). Hitz batzuentzat Gilbert N.-ren ahoskatzea eskuratu nuen (Balansun/Valensun, Orteze ondoko herria). Eskerrik asko haiei. Escòseko hizkera biarneraren sistema fonologikoari buruz ikus Hourquebie-Pinque 1982, zubererarenari buruz Coyos 1999 : 2. atala. Zubereraren ahoskera egiaztatu dut Thérèse E.-E.-rekin (84 urte, Altzürükü).

¹⁰ Allièresek, bokalen hiru irekidura-mailarako sistemaz ohartuz, besteak beste, hau dio Pirionioetako gaskoiaz : « Ce schéma semble refléter la double action possible d'un substrat euskarien et d'un substrat celtique, historiquement justifiables dans cette région » (2001 : 231. orr.).

¹¹ Tendance à la palatisation de la sonante *u* dans les parlers basques du Nord-Est, *Revue de linguistique romane*, 1937, XIII : 81. orr. eta Sur la voyelle *ü* en basque, *Bulletin de la Société de linguistique de Paris*, 1962, 57, 1 : 101-102.

« larru », *pelle* lat., *pèth* biarn: Olorue [pɛt], Escòs [pɛʃ].

Biarnoko mendietako hizkerek [-tʃ] badute (Ossauko, Aspeko eta Barétouseko ibarrak)¹².

« lepo », *collu* lat., *còth* biarn., Olorue [kɔʃ], Escòs [kɔʃ].

Escòsen pluralaren marka [ʃ] da, Oloruen [s]. Adib. : Escòsen [betétʃ] « txahal (sing.) » ~ [betétʃ] « txahal (plur.) », Oloruen [betèt] « txahal (sing.) » ~ [betéts] « txahal (plur.) ».

Baina zubererak [tʃ] hirugarren afrikari erretroflexua badu, Biarnoko hizkerek ez dutena (ikus 4.2. beheiago).

— **Kontsonante frikari ahostunak**

/z/ kontsonante frikari apiko-albeolar ahostuna

Zubereran bezala, /z/ fonema biarnes bat da. « ehiza », *çaça* biarn. Olorue [kásɔ], Escòs [kásə] ~ « etxe », *casa* biarn., Olorue [kázɔ], Escòs [kázə]¹³.

/ʒ/ kontsonante frikari sabaikari ahostuna

Beste ipar euskalkien /j/ zubereran /ʒ/ ahoskatzen da : *joan* « joan » [joan], baina zubereraz [zun]. Mailagatzearen bidez ere /ʒ/ sartua da Zuberoan : *mintzaje* [mintsáʒe] « mintzaira », *-atge* atzizki gaskoiarekin.

Kontsonante horrekin Olorueko, mendietako biarneraren eta zubereraren arteko hurbiltasunaren adibide bat badugu : « joko », Iparraldeko beste hizkeretan [jok□], zubereraz *jokü* [ʒóky], Olorueko biarneraz *jòc* [ʒɔk], baina Escòsen edo Biarnoko ipar-ekialdeko Vic Bilhen [jɔk] ; « jokatu », Iparraldeko beste hizkeretan [jokatú], zubereraz [ʒokháty], Olorueko biarneraz [ʒugá], Escòsen edo Vic Bilhen [jugá].

— **Latinaren /f/ hitz-hasiera hutsean /h/ bilakatu da**

/f/ hasiera absolutuan /h/ bilakatu da gaskoian maizenik, bokalarteko gunean noizbait ere (Rohlf's : 148) : « jai », lat. *festa*, biarn. *hèsta* [h□stɔ], [h□stə] ; « pago », lat. *fageu*, biarn. *hac* [hak]. Zubereran maizenik /b/ eman du : *besta* [b□ʃta], *bago* [bágo].

Hasiera absolutuan /f/ ez onartzea euskararen substratuaren eragina litzateke. Halere zubereran bezala /f/ hitz-hasiera hutsekiko hitzik badira ere biarneran, hitz berri, berregin edo zientifiko batzutan (Grosclaude, 2000 : 30).

— **/r/ gutxi hitz-hasiera hutsean**

Gaskoian /r/ hasiera absolutuan ez onartzea euskararen substratuaren eragina litzateke ere, erromantze aurreko ahoskeraren eragina bederen (Rohlf's : 150).

Halere gaskoiak [r] hitz-hasiera hutsean onartzen du, hitz gutxitan bada ere. Zubererak aldiz bat ere ez (duela gutxiko mailegu frantses urriz bestalde) :

« errabia », lat. *rabie*, biarn. *ràbia*, (*ar*)*rauja*, Olorue [rábjɔ], Escòs [ráwjə], zub. [erábja].

« arrazoi », lat. *ratione*, biarn. *rason*, Olorue [razú], Escòs [rez□], zub. *arrazu* [arraz□] / [arrazú].

« errege », lat. *rege*, biarn. *rei* [rɛj], zub. *errege* [erége] zub.

« erakasle », lat. *regens*, biarn. *regent*, Olorue [rezén], zub. *errejent* [erez'èt].

— **Latinaren *sc*, *st*, *sp* kontsonante-taldea**

¹² Amaierako [tʃ] hori mendiko biarneratzat hartua da. Halere hitz batzuentzat Olorueko berriemaileek forma hori bakarria erabilten dute : adib. [kɔʃ]. [-tʃ] Pirinioetako ibarretan hedatua da Val d'Aran, Lezeko ibarra, Salateko ibarra arte (Rohlf's : 152).

¹³ Hitz hasieran, zubereran bezala, Olorueko biarneran [z]- gutxi aurkitzen da : [zabjé] *Xavier* eta frantsesari hitz mailegatu batzutan.

Latinaren hasiera absolutuan den *s*+kontsonante taldeak *e*- epentetiko bat aurrean hartzen du biarneran. Euskaraz, zubereraz ere bai. Adib. : « eskola », lat. *schōla*, biarn. *escòla*, Olorue [eskólɔ], Escòs [eskólə], zub. *eskola* [εʃkóla] ; « sorbalda », lat. *spāthūla*, *espatla* biarn., Olorue [εspálɔ], Escòs [εspálə], zub. *espalda* [εʃpálda], etab.

— *e + a > ia* itxidurarako joera mendiko ibar auzoetan

Hemen Aspeko edo Barétouseko ibarretako biarnera zubererari hurbilago dela beste adibidea badugu. Hitz batzuetan *e + a > ia*, zubereran sistematikoa dena : *Féas* Barétouseko herria [hi(j)ás] ; « urteberriko oparia », *estrea* [εstrío], Oloruen [εstréɔ].

Itxidura hori hedatuago da batzutan.

— **Azentuazioa**

Zubereraren eta biarneraren azentuazio sistemak hurbilak dira. Oro har azentu oxiton eta paroxitonak ezagutzen baizik ez dituzte¹⁴.

4.2. Biarneraren eta zubereraren arteko desberdintasun batzuk

— */e/ ~ /ε/* : Zubererak */ε/* fonema gisa ez du, biarnerak bai.

Biarneraz *-er* infinitibo atzizkiarekiko aditzen kasuan, orainaldia eta iraganaldiaren arteko bereizketa aurkakotasun fonologikoaren bidez egiten da: [beném] « saltzen dugu » ~ [beném] « saltzen genuen », [sabém] « dakigu » ~ [sabém] « genekien », etab. Escòsen adibidez */pérə/* « madari » ~ */pèrə/* « eder (fem.) » (Hourquebie-Pinque : 7. orr.).

— **Herskari hasperendunak** [p^h]-, [t^h]-, [k^h]- : Biarnerak herskari mota hori ez du. Zubererak mailegatu dizkion hitzetan erabil ditzake : *pausada* [p^hawáda] « atsedenaldi », *zartan* [sar^hán] « gaztainak erretzeko tresna », etab.

— **Frikari txistukari ahoskabe eta ahostunak** : Biarnerak bi frikari txistukari ahoskabe ditu bakarrik : */s/* eta */ʃ/* eta bi ahostun : */z/* eta */ʒ/*. Escòseko biarnerak */ʒ/* ez du.

Zubererak hiru ditu : */s/*, */ʃ/* eta */ʒ/*, gehi ahostunak */z/*, */ʒ/* eta */ʒ/*, eta afrikari ahoskabeak. */tʃ/* apiko-horzkari erretroflexua da.

— **Dardakariak** : */r/ ~ /rr/* ; */χ/ ~ /r/ ~ /R/*

Oloruen bi dardakari badira, */r/* eta *rr/* : [purèt] *poret* « oilasko » ~ [purrèt] *porret* « porru ». Gauza bera liteke zubereran, bokalen arteko *-r-* bakuna ken ez balute : [pory] *porrū* « porru », baina [tʃɔj] *txori* « hegazti, txori ».

Escòsen hiru dardakari izan daitezke : */r/*, */χ/*, */R/* (Hourquebie-Pinque : 28. orr.).

— **Latinaren /l/ amaiera absolutuan /w/ edo /tʃ/ bilakatu da gaskoian** (ikus beheago 5.2.), ez zubereraren mailegu zaharren kasuan : « zeru », lat. *cælum* > zub. *zelü* [sély], biarn. *cèu* [sɛw] (Olorue, Escòs) ; « txapel », lat. *cappellus* > zub. *txapel* [tʃápɛl], biarn. *capèth*, [kapètʃ] (Olorue), *capèu* /ʃapèw/ (Escòs).

— **Sudurkari edo aldekarri ondoko herskariaren arteko ozentasun aurkakotasunaren neutraliziaziorik ez**

Bokalarteko [p], [t], [k] ozenketa gabe egoten badira Aspeko eta Barétouseko ibarretan, sudurkari edo aldekarri ondoan ozentunak dira (Rohlf's : 137), Ossauko ibarrean ere bai. Fenomenoa Oloruen ere agertzen da : *crampa* [kránbɔ], lat. *camera* « logela ». Biarnoko gehiengoan ozenketarik ez da edo gutxi, Escòs : [krámpə].

¹⁴ Hourquebie-Pinquek Escòseko hizkeraz, 1982 : 4. orr., Allièresek okzitaniaraz, 2001 : 20. orr., Coyosek zubereraz, 1999 : 80-8.

Hemen zubererak ez ditu Aspeko eta Barétouseko ibarrak segitzen eta ez ere beste euskalkiak. Adib. : [s'äk^ho] « zango », [ʒ'ète] « jende ».

Kasu horretan zubererak, bakarra bada ere bere euskal eta biarnes auzoen artean, biarneraren gehiengoak bezala jokutzen du¹⁵.

— **Metatesiak :**

Zubererak biarneraren metatesiak hartu ditu.

« pobre », lat. *pauper*, biarn. *praube* [práwbɔ], [práwbə], [práwba], zub. *prau(b)e* [práwe].

« samur », lat. *tendere*, biarn. *trende* [tr'ède], zub. *trende* [tr'ède].

Halere lat. *camera* « logela » hitzarekin metatesirik ez da : biarn. *crampa*, Olorue [krámbo], mendiak [krámpa], Escòs [krámpə], zub. *kanbera* [k'hábéa]. Zubererak hitz hori biarnesari ez diola mailegatu ageri da.

5. MAILEGUEN AHOSKATZEAREN EREDUAK : LATINETIK BIARNERARA ZUBERERARAINO

Sortu eta baliatu dudan corpusa eranskin baten emana da. Metodologiari dagokionez, ondorio batzuk ateratzeko nahian oraiko gauzatze fonetikoak konparatzen ditut, sinkronian. Hizkuntza batek, euskarak, beste bati, biarnerari, duela mende batzuk mailegatu zizkion hitz batzuen gaur egungo ahoskera eta hizkuntza emaile horren hitzen gaur egungo ahoskera parekatzen ditut. Halere, bilakaera diakronikoa kontuan hartzen dut ere, latinetik biarnerara pasatuz eta gero azken honetatik zubereraraino, ikerketa ezagutuenak baliatuz (Rohlf's, Allières, Grosclaude).

5.1 Biarneratik zubererara: soinuen arteko korrespondentzia batzuk

5.1.1. Bokalak

— **-[é] > -[é] azentuduna hitzaren amaiera absolutuan**¹⁶

Biarn. [menyzé], [murté] > zub. [menyzé] « zurgin », [murté] « almaiz », zubererak /e/ fonema ez baitu onartzen.

Silaba itxia denean, alderantzia da : biarn. [pa lét], zub. [pa lét] « arno gorri ».

— **-[í], -[ú] azentudun begiratuak hitzaren amaiera absolutuan** Zubererak ahoskera biarnesa begiratzen du eta ondorioz hitza oxitonoa da. Biarn. [kukí], zub. [kokí] *koki* « frikun » ; biarn. *medecin* [medesí], zub. [bedezí] *bedezi* « mediku ». Biarn. *raison* [razú], zub. [arazú] *arrazu* « arrazoi » ; biarn. [sablú], zub. [fabú] *xabu* « xaboi »¹⁷.

— **-[a] postoniko begiratuak hitzaren amaiera absolutuan**

Latinaren [-a] postonikoa hitzaren amaiera absolutuan [-a] ahoskatzen da Biarnoko mendiko ibarretan zubereran bezala. Beraz Oloruen [-ɔ], Escòsen [-ə], mendietan [-a] badugu. Adibidez : biarn. *vaishèra* « *baxera* », Olorue [baʃérɔ], Escòs [baʃérə], Aspeko eta

¹⁵ Jacques Allièresek fenomeno hori « *fonction ethno-démarcative* » delakoaren bidez esplikatzeko zuten, zuberotarrek beren auzoetatik bereizi nahi zutelaren esanez (La fonction ethno-démarcative en linguistique : 177). Zubererak *kanbera* « logela » [k'hábéa] ahoskatzen da, silaba atonoa delarik.

¹⁶ Zubereraren azentu oxitonoaren jatorri desberdinez ikus Coyos, 1999 : 82-84.

¹⁷ Zuberotar batzuentzat [-ú]-rekiko sudurkaritasuna ez da desagertua : [-ɔ], [arrazɔ], [fabɔ].

Barétouseko ibarrak [baʃéɾa] eta Zuberoa [baʃéja] ; biarn. *taula*, Olorue [táwɫə], Escòs [táwɫə], Aspeko eta Barétouseko ibarrak eta Zuberoa [táwɫa].

Hau da Barétouseko, Aspeko ibarretako biarneraren eta zubereraren arteko beste hurbiltasun ezaugarri bat, Val d'Araneko ibar arte hedatzen dena (Rohlfs : 5).

5.1.2. Kontsonanteak

Herskariak

— [p-] > [pʰ-] edo [p-] Adib. : zub. *pausada* [pʰawáda] « astedenaldi », biarn. *pausa*, *pauseta* ; zub. *pixontzi* [pʰifótsi].

— [t-] > [tʰ-] edo [t-] Adib. : zub. *zartan* [sarthán] « gaztainak erretzeko tresna », biarn. *sartan*, *sartana*.

— [k-] > [kʰ-] edo [k-] Adib. : zub. *bokata* [bukʰáta] « musuzapi », biarn. *bugada*.

Frikariak

— [s] > [ʃ] edo [ʃ]

Zubereraz [s] kontsonante frikari apiko-albeolar ahoskabea [ʃ] erretroflexu ahoskabea bilakatzen da kontsonante aurrean eta amaiera absolutuan, [ʃ] erretroflexu ahostuna bilakatzen da bokal artean. Adib. kontsonante aurrean : biarn. *desplaser* [desplazé], zub. *desplazer* [deplazé] ; biarn. *francés* [frantsés], zub. *frantses* [frantés]. Amaiera absolutuan : zub. *baiones* [bajuné] « baionar », *irus* [ijú] « zoriontsu ». Bokal artean [-s-] > [-ʃ-]: zub. *desonest* [deunést] « ohoin ».

— [-z-] > [-ʃ-]

Bokal artean : biarn. *desencusa* [dezékýzə] (Naríoo), zub. *desenküsa* [deékýa] « estakuru ».

5.2. Eratorpena : latinetik biarnerara, biarneratik zubererara

5.2.1. Atzizkiak¹⁸

— Lat. *-ālem*, gask. *-au* (Grosclaude).

Biarn. -[áw] : *espítaw* [εspitáw] « ospitale », *portaw* [purtáw] « portale ».

Zub. -[ále] : *ospítale* [ɔpitále], *portale* [pɔrtále].

Hemen, zuberera, beste euskalkiak bezala, biarnera baino kontserbadoreagoa da.

— Lat. *-ante*, ok. *-ant(a)* (Allières).

Biarn. -[án] : *-ant*, *-dant*, *-lant* : *franchimand* [franʃimán].

Zub. -[ʔāt] : *arraileilant* [aralel'āt] « erri eginarazten duena », *frantzimant* [frãntsím'āt], *tratülant* [tratyl'āt] / [tratal'āt] « tratulari ».

Hemen zubererak azken silabaren amaiera absolutuan den kontsonantea begiratu du, atonoa bilakatu da biarneran. Era berean ikus beherago lat. *-ente*, ok. *-ent(a)*.

— Lat. *-āriūm*, *-āriām*, gask. *-èr*, *-èra* (Grosclaude).

Biarn. -[é] : *cautèr* [kawté] « galdaragile », *menüsèr* [menyzé] « zurgin ».

Zub. -[é] : *kauter* [kawté], *menüser* [menyés]. Hemen [é] biarnesa [é] bilakatzen da zubereran, silaba irekian¹⁹.

¹⁸ Allières, 2001 : 166-170 ; Grosclaude, 2000 : 43-47.

¹⁹ *-sa* atzizki femininoaren aurrean, *-r-* ez da desagertzen, amaiera absolutuan ez baitago orduan : *ostaler* [ohtalé] « aterpekide », [ohtalés] « aterpekide den emakumea ».

— Lat. *-ātiċum*, *-ātiċam*, gask. *-atge*, *-atja* (Grosclaude)

Biarn. -[ádʒe] : *coratge* [kurádʒe] « adoretzu », *viatge* [bijádʒe] « bidaia ».

Zub. -[áze] : *bidaje* [bidáze], *kuraje* [kuáze], *mintzaje* [mintsáze] « hizkuntza », eratorri mistoa (ikus 5.3.1.)

Zubererak atzizkia aldatu du pixka bat, t- kenduz bi kontsonante segidan ez izateko.

— Lat. *-ātiōne*, ok. *-ason* (Allières)

Biarn. : *rason* « arrazoi », Olorue [razú], Escòs [rez□] ; *sason* « urtaro », Olorue [sazú], Escòs [sez□].

Zub. *arrazu* [arrazú/□], *sasu* [□a□ú/□].

Markatua zen sudurkaritze hori galtzen da Zuberoan²⁰.

— Lat. *-ātu -a*, ok. *-at*, *-ada* (Allières),

Biarn. : Oloruen -[ádɔ], Escòsen -[ádə], ibarretan -[áda] zubereraren bezala. Adib. zub. [buháda] *buhada* « haizekada », [pʰaw□áda] *pausada* « atsedenaldi », *taulada* [tawláda] « zola ».

Barétouseko, Aspeko ibarretako biarneraren eta zubereraren arteko hurbiltasun hori 5.1.1. lerroaldean aipatu dugu.

— Lat. *-ěllum -ěllam*, gask. *-èth*, *-èra* (Grosclaude, txikigarri)

Biarn. *-èth* Olure [ét], Escòs [ét], mendietako ibarrak [étʃ], zub. [étʃ]

Biarn. *mantèth* « eskuare », Olorue [mätèt], Aspeko ibarra eta Zuberoa [mätètʃ] ; *pastèth* « talo », Olure [pastèt], ibarrak [pastètʃ], zub. [pa□tètʃ], etab.

Barétouseko, Aspeko ibarretako biarneraren eta zubereraren arteko hurbiltasuna hor ere agertzen zaigu. Noizbehinka zuberera kontserbadoreagoa da : « mailu », lat. arrunta *martellus*, zub. *marteilü* [martély], biarn. *martèth* [martèt].

— Lat. *ē(n)se*, ok. *-és -esa* (Allières).

Biarn. -[és] : *baionés* [bajunés] « Baionar », *francés* [frantsés].

Zub. -[é□] : *baiones* [bajuné□], *frantses* [frant□é□].

Hemen -[és] biarnesa -[é□] bilakatzen da. Bokala eta kontsonantea aldatzen dira silaba itxian.

— Lat. *-ente*, ok. *-ent(a)* (Allières).

Biarn. -[én] : *pendent* [pèdén] « belarritako », *regent* [rezén] « erakasle ».

Zub. -[ént] : [pèdént] *pendent*, *errejent* [erez'èt].

Zubererak azken silabaren amaiera absolutuan den kontsonantea begiratu du, biarnerak ez.

— Lat. *-īnu -a*, ok. *-in -a* (Allières).

Biarn. *coquin* [kukí] « frikun », *medecin* [medesí] « mediku ».

Zub. [í] : *koki* [kokí], *bedezi* [bedezí].

Sudurkaritasuna desagertu da zubereraren, biarneraren bezala.

— Lat. *-ōsu -a*, ok. *-□s -osa* (Allières).

Biarn. -[ús] : *urós* « zoriontsu », Olorue [yrús], Aspe [irús] ; *coratj□s* [kuradʒús] « adoretzu »; *malurós* [malyrús] « zoriongabe ».

Zub. -[ú□] : *irus* [ijúʃ], *kurajus* [kua□úʃ], *malerus* [maleú□].

Azentua oxitonoa gelditzen da, baina -[s] -[□] bilakatzen da berriz.

— Lat. *-tōriūm*, *-tōriām*, gask. *-der*, *-dera* (Grosclaude, tresnentzat).

²⁰ T. E.-E. berriemaileak, adibidez, sudurkaritzerik gabeko formak nahiago ditu : *arrazu* [arrazú], *xabu* [fabú] etab.

Biarn. : *bohader* [buhadé] « hauspo », *eishugader* [éʃyɡadé] « eskuoihal ».

Zub. : *buhader* [buhadé], *txükader* [tʃykadé] « eskuoihal ».

Hemen atzizkiaren ahoskera aldatzen ez da.

— Lat. *-ūra*, ok. *-ura-* (Allières).

Biarn. : *frescura* [frɛskýrɔ] « freskura ».

Zub. : *abiadura* [abjadýa] « abiadura », *fresküra* [frɛkúya].

Ahoskera ez da aldatzen, baina zubereraren bokalarteko *-[r]-* bakuna mutu da.

— Lat. *-ūtu -a*, ok. *-ut -uda* (Allières).

Biarn. : *perdüt* [pɛrgýt] edo [pɛrdýt] ; zub. : *perdüt* [pɛrdýt]. Ahoskera ez da aldatzen.

— Aurreko lat. *-ottu -a*, ok. *-òt(a)* txikigarria (Allières, 2000 : 183).

Biarn. : *coquinòt* [kokin'òt], *plaçòta* [plas'òtɔ].

Zub. *-ot* : *kokilot* [koki'l'òt] « frikun txiki », *plaxot* [plaf'òt] « plaza txiki », *tripot* [trip'òt] « odolki ».

Ahoskera ez da aldatzen.

5.2.2. Aurrizkiak (Allières, 2001 : 190)

— Lat. *dis-*, ok. *des-*, izen, aditz eta adjektiboentzat .

Biarn. : [dɛs]-, [dez]- ; zub. [dɛɰ]-, [deɰ]- : [déɰobedj'èt] *desobedient* « desobeditzaile », [déɰunɰɰt] *desonest* « ohoin ».

Noiztenka Olorueko hizkeran *mal-* [maw] aurrizkia gerta daiteke *des-* horren orde zubereraren. Zub. [déɰunɰɰt] eta ez Olorueko [mawawnéste] *mauawnéste*, edo alderantzia, zub. [maleʃtrýk] *malestrük* « trakets » eta ez Olorueko [dezeʃtrýk] *desestruc.*

— Lat. *male-*, ok. *mal-*,

Biarn. : [maw]- ; zub. kontserbadorea [mal]- : [maleʃtrýk] *malestrük*.

5.3. Zubereraren eratorpenaren eta hitz-elkarketaren adibide batzuk

5.3.1. Eratorpena : aurrizkiaren edo atzizkiaren mailegatzea bakarrik

[bidáze] *bidaje* « bidaia » : *bide* euskal izena + *-atge* ekintza-atzizki gaskoia ; [mintsáze] *mintzaje* « mintzaira, hizkuntza »: *mintza-tü* euskal aditza + *-atge* atzizki gaskoia.

[deɰopiláty] *desoropilatü* « deskorapilatu » : *des-* aurkako edo ezeztapen aurrizki gaskoia + *oropila* « korapilatu » euskal aditza aurkako aditza egiteko.

[ematʃ'òt] *ematxot* « emakume txiki » : *emazte* « emakume » euskal izena + *-òt* atzizki txikigarri gaskoia, [hawr'òt] *haurrot* « haur txiki (peioratibo) » : *haur* euskal izena + *-òt* atzizkia

[gesyr'tér] *gezürter* « gezurti » : *gezür* « gezur » euskal izena + *-ter* atzizki ez ezaguna.

[ogend'ät] *ogendant* « ogendun »: *ogen* euskal izena + *-dant* atzizki gaskoia.

5.3.2. Eratorpena : euskal atzizkia hitz mailegatuarekin

[arnegári] *arnegarri* « aspergarri » : *arnegar* « irain egin, uko egin » aditz gaskoia + *-garri* euskal atzizkia, adjektibo bat konposatzeko ; *xarmagarri* « liluragarri ».

[fajsúsy] *faizuzü* « maniéré » : *faizu* « molde, era » hitz gaskoia + *-zü* oparotasun euskal atzizkia, adjektibo bat konposatzeko ; [ped'ɔʎtsy] *pedoiltzü* « zorritsu » : *pedolh* « zorri » hitz gaskoia + *-zü* oparotasun euskal atzizkia, adjektibo bat konposatzeko.

[mu□urkáty] *musurkatü* « muturrekin miatu (txerri) » : *mus* « mutur » hitz gaskoia + *-ka* euskal ekintza atzizkia, aditz bat egiteko.

[mèn□ty] *menstü* « ergeldu, zozo » : *ments* « eskas, gutxi » hitz gaskoia + *-tü* euskal amaierazko aditz-atzizkia, aditz bat egiteko.

[pĩtukáj] *pintukari* « ardozale » : *pintu* « pinta, txopin » hitz gaskoia + *-kari* euskal atzizkia, izen bat konposatzeko.

5.3.3. Hitz-elkarketa bi hizkuntzen hitzak baliatuz

[phif□tsi] *pixontzi* « pixontzi », irain gisa ere » : *pixa* euskal izen edo gaskoia + *ontzi* euskal izena ; [phifap'ɔt] *pixapot* « kalakari » zentzu eratorria, *pixa* + *pòt* izen gaskoia.

[m□□kofí] *moskofi* « mokofin » : *mosko* « moko » euskal izena + *fi* « fin » adjektibo gaskoia ; [mýthyrfí] *mütürfi* « mokofin » ere bai, *mütür* « mutur » euskal izena + *fi* « fin ».

[k□(n)tresílo] *kuntrexilo* « oker (irentsi) » : *kuntre* « aurka » preposizio gaskoia + *xilo* / *zilo* « zulo » euskal izena.

[ádarpalét] *adarpalet* « adar saihestuekiko behi » : *adar* euskal izena + *palét* « adar zapalduekiko behi » biarnes izena (Simin Palayen hiztegia, 1932-1934).

[ε□kymätjú] *eskümantxo* « eskularru » : *eskü* « esku » euskal izena + *mantxo* « zorro » biarnes izena.

6. ONDORIOAK

Zubererak bi aurkako jarrera izan dituela esan dezakegu, biarnerari, gaskoiari mailegatu dizkion hitzekin. Alde batetik hartu dituen hitzak bere fonologiari moldatu ditu : [p^h], [t^h], [k^h] herskari hasperendunak, /□/ eta /□/ apiko-horzkari erretroflexuak baliatuz, adibidez. Bestetik ezagutzen ez zituen beste ezaugarri fonetikoak ziren bezala hartu ditu : mailegatu zituen biarneraren azentu oxitonekiko hitzak oxitonoak gelditu dira, halaber mailegatu zituen atzizki oxitonoak, metatesiak. Baina [ε] amaiera absolutuan ez du onartu, adibidez, halaber [ɔ] edo [ə].

Ikerketa honen beste ekarpen garrantzitsu bat da Aspeko edo Barétouseko ibarretako biarnera Biarnoko hizkeretatik hurbilena zaiola zubererari : [ʒ]-ren erabiltea [j]-ren ordez, -[tʃ] afrikaria hitzaren amaiera absolutuan -[t]-ren edo -[tʃ]-ren ordez, latinaren [-a] postonikoa hitzaren amaiera absolutuan begiratzea, etab. Noiztenka, hurbiltasun hori Ossau eta Pirinio Garaietako ibarretako hizkerari hedatzen zaie. Hurbiltasun hori ikerketa sakon baten bidez ikertzeko litzateke.

Dena den hurbiltasuna ez da baizik geografiari lotua, zeren eta ez da agertzen Zuberoa ukitzen duen zelaiko Biarnon. Orotara euskararen eragina, alde batetik substratu gisa eta bestetik ukipen-hizkuntza gisa, susma dezakegu Biarnoko ibar horietan.

- ALLIERES Jacques, 1975, La fonction ethno-démarcative en linguistique, *Actes du IIe Colloque international de linguistique fonctionnelle* (Clermont-Ferrand, 1975/07/22-27), Clermont-Ferrand, C.R.D.P. : 173-180.
- _____, 2001, *Manuel de linguistique romane*, Paris, Honoré Champion.
- BONNEMASON Jan, 2005, *Interférences linguistiques entre basque & gascon (béarnais)*, Monein/*Monenh*, Pyrémoude / Princi Negue.
- COYOS Jean-Baptiste, 1999, Aperçu de la phonétique, de la phonologie et de la morphologie, in *Le parler basque souletin des Arbailles - Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan : 57-93.
- _____, 2001, A propos de *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne* de Txomin Peillen, *Lapurdum*, VI, Baiona, IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea - UMR 5478 : 391-419.
- _____, 2006, L'apport lexical de l'occitan gascon béarnais au basque souletin, *Bulletin du Musée basque*, hors série, Baiona, Société des Amis du Musée basque : 201-223.
- _____, argitaratzeko, De l'apport lexical du basque souletin, *L'apport de Gerhard Rohlfs à la connaissance des langues pyrénéennes*, Oloron-Sainte-Marie (Biarno), 2007/02/02-03.
- GAFFIOT Félix, 1964 (1937), *Dictionnaire illustré Latin-Français*, Paris, Librairie Hachette.
- GROSCLAUDE Michel, 2000, *70 clés pour la formation de l'occitan de Gascogne*, Pau, Per Noste - La Civada.
- _____, 2006 (2^e édition), *Dictionnaire Toponymique des Communes Béarn*, Pau / Serres-Castet, éditions Cairn et éditions Reclams.
- HAASE Martin, 1990, Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz, *Euskara*, XXXV, 2, Bilbo, Euskaltzaindia : 405-415.
- _____, 2002, Basque et gascon en Basse-Navarre, *Bulletin du Musée basque*, Biarritz, Atlantica: 201-223.
- HOURQUEBIE Francis, PINQUE Monique, 1982, *Phonologie synchronique et phonétique historique du parler d'Escos (Béarn)*, Giovanna Madoniaren gidaritzapean, Université René Descartes, Paris, polikopia.
- PEILLEN Txomin, 1992, Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk, *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, *Iker*, 7, Bilbo, Euskaltzaindia : 247-272.
- _____, 1998, *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*, Madrid, Estudios de la UNED.
- PER NOSTE, 2005, *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)*, 2 liburuxka, Orthez/Ortese, Per Noste.
- ROHLFS G., 1977 (1935), 3^e edizio emendatua, *Le Gascon Etudes de philologie pyrénéenne*, Tübingen - Pau, Max Niemeyer Verlag - Marrimpouey Jeune.